

Eskual-Herri'ko Leen-Gizona

PALEOLITHOS-AROA

Atsegin artu dut Chabier Gazteiz'ek AINTZINA'n argitaratu dituen lerroak irakurtzean.

Gai ortan zerbait erran nai nuke nik ere, 'AINTZINA' ren zuzendariari ongi azalduak emen ere.

Isturitz'ko *Laminazilo*'n, aro artako giza-enda baten (*Homo neandertalensis*) matrail-ezurr bat arkitu zen. Leze-artzaren eta rhinokerosen ezurr batzuek zeuzkan bere inguruan. ⁽¹⁾

Gañera orduko langintzaen agiriak — batez ere *Moustier* aldikoak agertu dire toki batzuetan, bereziki aipatu dugun *Laminazilo*'n, *Olha*'ko arpean, *Zuñiga*'n eta — dirudienez — *Dima*'ko *Axlorr*'en.

Aitzbitarte'ko lezean ere ba — dire leen — paleolithos aroko aztarnak. Ara zer iskribatzen ziran 1917go Urriaren 6n — ni ikaskuntza oetan asi nintzan egunetan — mundu guztian aipatua den Breuil apaiz jaunak :

Landarbaso edo Aitzbitarte'ra azkeneko egin nuen itzulian, ibili nintzan ango lezeetan den beherenekoan, eta bildu nituen leen-paleolithos aroko aztarnak... Lezean ba-dire « coup de poing » tankerako harriak.

Gure leze, arpe eta bertze aztarnategietan agertu diren tresnak eta abere-ezurak aski adierazten digute orduan Eskual-herria'n ziren gizonak iizetik bere jatekoa biltzen zutela. Eta lan oretan iiztariak elkarr eginik, sail aundian, ibiltzen zirela : abere aundi eta izigarri aiek ezin eskutaratu eta hil zitezken bertzela.

Beraz emengo gizonak iiztariak ziren eta elkarr-arte edo sozietateak ba-zituzten leen-paleolithos aroan.

Barandiaran J. M.

Sara'tik, 1942go Martxoaren 15n.

(1) Marcelin Boule, *Les Hommes fossiles*, p. 184, Paris, 1923.